

ALDE ILUNAK

Tabernekin dudan harremana nahiko korapilatsua izan da beti. Alde batetik, ez ditut batere gogoko giro horretan izaten diren solas alferrak, ezta oihuak edo gustu txarreko txisteak ere, eta denbora galeratzat jotzen dut, gehienbat duela bi urtetik, aita hil zenetik. Baina, bertze alde batetik, neure burua ezagutzen dut eta badakit zer erraz berotzen naizen eta nola ohartu gabe, alkoholarekin kontuz joaten ez banaiz, arbuiatzen ditudan portaera berberetan erortzen ahal naizen, eta une horietan ongi pasatzen badut ere, ondorengoia damua da, atsekabea. Sagardo edo zurito xumeenek ere antzaldatze ahalmen hori badute. Horregatik, nahiago dut ahalik eta gutxienetan joan, oso behartuta baldin banago eta aukera gehiagorik ez dagoenean.

Beraz, bolada honetan hain maiz etortzen banaiz eta horrenbertze denbora hemen ematen badut, ez da iritziz aldatu edo bat-batean plazandre bihurtu naizelako, ez, Mikelekin, tabernariarekin, egon ahal izateko baizik, lagun egiteko, terapia moduko hizketaldiak harekin trukatzeko, barreneko mina sendatu behar denean hitza baino hoberik ez dagoelako. Hitza, bai, baina ez zernahi hitz, funtsik gabea edo hutsala, edo konplitzeko erraten dena, baizik eta ongi zuzendua, zehatza, sentimenduz beterikoa, bakarrik egokiera beretik pasa denak aukeratzen ahal duena.

Duela urtebete jakin nuen Mikelek ama adindua zaindu ahal izateko, zahar-etxe batera eraman edo horretarako norbait kontratatu beharrean, tabernan egoteari utziko ziola eta bera izanen zela zaintzaz arduratuko zena, harekin bizitzera joanez, inoren laguntzarik gabe. Poztu nintzen, neronek bi urte lehenago hartutako erabaki bera zelako, baina oso egoera berdintsua zenez, dementziak jotako adin handiko pertsona ezindu bat, erronka ere antzekoa izanen zela ikusiz, aurrerantzean zuena niri egokitu zitzaidana bezain gogorra ez izatea opatu nion.

Hala ere, dena bide beretik joan zen eta nik hain ongi ezagutzen ditudan ondorio berekin: Mikelen ama hil den arte ezin hobeki zaindua izan bada ere, Mikelengan berarengan gelditu den sentipena nahasia da, badaki egin beharreko guztia egin duela, maitasunez eta batzuetan bere osasuna kolokan jarriz ere, baina egoeraren gordinak barreneko muturrera eramanda, bere alde ilunak, bere mugak eta ahuleziak ikustera iritsi da eta, horrela, legokiokeen gogobetetasuna estalita geratu da gustu garratzeko bertze aurkikuntza horrekin.

Horregatik joaten naiz Mikelenera, ama galdu zuenetik hiru hilabete soilik pasa direlako, zauria oraindik irekia du eta oso minduta dagoelako. Eta badakidalako mina, benetakoa, heriotzak berak sortzen dionaz gain, ama hil arteko haren zaintzan aritutako denboran bizitakoak eragiten diola. Eta nire esperientzian, mota horretako minak ez dira bakarrik denbora pasatzen uztearekin sendatzen, zerbait gehiago behar da, bizitzaren ataka horretatik onik atera denaren bizipenak aditzeak mesede egiten du. Arimak behar duen bakea aurkitu nahian dabil Mikel eta, horretarako, lagungarri izaten

ahal zaio jakitea bera ez dela bakarra, adibidez, lo egin eziniko gau bat bertzearen ondoren igarotzeak sortzen duen nekearen ondorioz kontrola galdu eta amari garrasi egin diona, edo berriz ere gernuaren zundatik ez tiratzeko eskuan zaplazteko bat ema diona, edo ipurmasailetako zauriak sendatzean nazka eta goitik botatzeko nahia sentitu duena, hainbatetan amaren ezintasunak bere onetik atera duena.

Gainera, holako "gehiegikeriak" gure zaintzapean dagoen guraso bati egin izanak, jakinda ere une horretan munduan dagoen pertsonarik ahulena eta errugabeena dela, doilor sentimendua sortzen digu, maitasunez hartutako konpromisoaren maila eman ez izanaren sentsazioa. Gure benetako izaera ezagutzen dugu bizitzak mutur horretaraino eramaten gaituenean, hor aurkitzen dugu guztiok barrenean daramagun "tratu txarren emailea", "esker txarrekoa", "gupidagabea", "munstroa" azkenean, eta ez dugu aringarririk onartzen auto-epai gogor honetan. Horregatik, hori guztia zer den ez dakien norbaitek gure ereduzko portaeragatik zoriontzen gaituenean, alderantzizko ondorioa lortzen du, soilik guk ezagutzen dugun alde ilun horretara nahi gabe eramaten gaituelako eta kalte egiten digu. Eta, aitzitik, on egiten digu bertze baten ispiluan geure burua ikustea, bakarrik ez garela egiztatzea, denboraren ahalmen sendagarria gauzatzen den bitartean, hau da, gure burmuinean eta gure bihotzean oroitzapen onak hanka sartzeen gainetik nabarmentzen diren bitartean.

Senarrak ikusiko banindu tabernako txoko honetan, arratsaldeko ordu lasaietan, infusio batekin, Mikelekin ahopean hizketan, elkarren begietara so, ez dakit zer pentsatuko lukeen. Baina badakit, azalduko banio ere, ez litzakeela jakiteko gai izanen nolakoa den hona ekartzen nauen beharra, antzeko bizipenik ez duelako behin ere izan. Nola adierazi, Mikel laguntzeaz gain, oraindik barrenak jaten dizkidan zauria erabat ixten bukatzera natorrela, ariman piztuta daramadan infernua itzaltzera? Sinetsiko lidake oraindik negar egiten dudanean isuritako malkoak aitagatik baino gehiago neure buruagatik direla eta horretaz ere sendatu nahi dudala?

Aldameneko mahaian solasean ari da ohiko bezeroa den emakume koadrila bat, ordu hauetan dagoen bakarra. Bat-batean, ahotsa ozentzen dute hizpidea garbi utziz, haien gurasoen zaintza. Hain zuzen ere. Mikel urduritu dela sumatzen dut. Gure artekoa isiltzen, elkarrizketan jartzen dugu arreta. Une batean, ama zaintzeko egun osoko langile atzerritarra duen gure adineko batek ordaintzen duen soldata aipatzen du, kexaka, eta bere iritziz gehiegizkoa denez, bertze merkeago bat bilatzen ari dela azaltzen du, gainerakoen onespenearekin. Mikeli begiak ireki eta giharrak tenkatzen zaizkio, jauzi egiteko prest. Haren eskuak nireen artean hartuta estutzen ditut eta, xuxurlatuz eta lasaitasunez erraten diot uzteko, eusteko, ez duela merezi, ezinen luketela ulertu.